



Honen bitartez, jakinarazten dizuet alkate-presidenteak, 2021eko urriaren 21eko 516/2021 zenbakidun dekretuaren bidez, erabaki hau hartu duela:

Kirol-teknikaria ordezkatzeko hautaketa-prozesua 2021eko irailaren 29an jarri zuen martxan Orioko Udalak, oinarriak argitaratuz Orioko Udalaren webgunean eta Lanbideren webgunean. Hautaketa-prozesurako eratutako epaimahai kalifikatzailea honela osatuta dago:

Epaimahaiburua: Jon Carrera Jauregi, Orioko Udaleko idazkari-kontu-hartzailea.

Kideak:

- Adrian Garcia Melero, Orioko Udaleko turismo-, merkataritza- eta ostalaritza-teknikaria.
- Jabier Zabaleta Iraola, Orioko Udaleko euskara- eta hezkuntza-teknikaria.

Idazkaria: Maria Jose Manterola Aragon, Orioko Udaleko administraria.

Hautaketa-prozesua Lanbideren bidez egin da, eta 2021eko urriaren 7ra arteko epea zegoen hautagaitzak jasotzeko. Baldintzak betetzen zituzten 44 hautagai jaso zituen epaimahaiak, eta horiek baloratu zituen, 2021eko urriaren 14an eginiko bilkuran. Bilkura horren ondoren, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratu zuen Udalak, urriaren 15ean, eta hiru laneguneko epea eman zien hautagaiei erreklamazioak eta dokumentazio osagarria aurkezteko.

Epaimahaia 2021eko urriaren 21ean bildu da, aurkeztu diren erreklamazioak aztertzeko. Guztira, bost hautagai aurkeztu dituzte erreklamazioak, eta epaimahaiak, horiek banan-banan aztertu ondoren, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda proposatu dio alkateari.

Emaitzak aztertuta, hautagai bakarra dago euskarazko derrigorrezko profila aurkeztu duena (C2), eta bera da, beraz, zerrendan aurrea. Hautagai hori bera da, gainera, erreklamazioak aztertu ondoren, hautaketa-prozesuan puntuaziorik altuena lortu duena. Nolanahi ere, oinarrietan jasotakoaren arabera, hautagai horrek uko egingo balio lanpostua betetzeari, lehiaketan gutxieneko puntuazioa (5 puntu) lortu duten hautagaien zerrendako hurrenkera hartuko litzateke kontuan, beheko taulan jasota dagoen bezala.

Puntuazioan berdinketa dagoen kasuetan, hurrenkera zozketa bidez erabaki da epaimahai kalifikatzaileak 2021eko urriaren 14an egindako bilkuran (zozketa bidez «P» hizkia atera da, eta alfabetoko hurrenkeran ordenatu dira onartutako hautagaiak, lehen abizenaren arabera).

Aurreko guztiaren argitan, epaimahai kalifikatzaileak alkateari proposatu dio Jon Ander Garcia de Cortazar Aguirrezabal izendatzea praktiketako bitarteko funtzionario.

Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Eraberritutako Testuaren 24. artikulua eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 41. artikulua ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz, hau



ERABAKITZEN DUT

1.- ARGITARATZEA kirol-teknikari lanpostuaren deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta merezimenduen behin betiko kalifikazioa eta lan-eskaintzaren hurrenkera, segidako taularen arabera:

ONARTUAK					
HURRENKERA	NAN	C2	ESKARMENTUA	FORMAZIOA	GUZTIRA
1	72465217Z	BAI	14,75	5	19,75
2	44168898C	EZ	14,25	5	19,25
3	44334037L	EZ	11	2	13
4	44144163X	EZ	6,25	5	11,25
5	72468863A	EZ	5	2	7
6	72514647G	EZ	0	5	5
7	44566519V	EZ	0	5	5
8	72746230J	EZ	0	5	5
BAZTERTUAK					
	72545622B	EZ	0	2	2,25
	15258638R	EZ	0	4,46	2
	44155639D	EZ	0	2	2
	44144851P	EZ	0	2	2
	44559898C	EZ	0	2	2
	72827101Q	EZ	0	2	2
	72603188P	EZ	0	2	2
	72539140S	EZ	0	2	2
	58008520J	EZ	0	2	2
	72554348C	EZ	0	2	2
	49581926K	EZ	0	2	2
	44565495M	EZ	0	2	2
	72458689H	EZ	0	2	2
	78945884V	EZ	0	2	2
	72508456J	EZ	0	2	2
	78925717K	EZ	0	2	2
	45950690W	EZ	0	2	2
	72319553D	EZ	0	2	2
	72538236P	EZ	0	2	2
	72853046V	EZ	0	2	2
	79046652E	EZ	0	2	2
	44557286F	EZ	0	2	2
	72601638E	EZ	0	2	2



	72462790W	EZ	0	2	2
	72537459N	EZ	0	2	2
	72828102M	EZ	0	2	2
	72836586W	EZ	0	2	2
	44563672E	EZ	0	2	2
	79054406W	EZ	0	2	2
	44569444K	EZ	0	2	2
	72545301N	EZ	0	2	2
	72538120F	EZ	0	2	2
	72458916S	EZ	0	2	2
	44334196V	EZ	0	2	2
	72502418R	EZ	0	2	2

2.- **JAKINARAZTEA** interesatuei aurkeztu daitezkeen helegiteak.

Jakinarazten dizuegun erabaki edo ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean eta honen aurka **ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA** jar dezakezu Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegien aurrean, bi hilabeteko epearen barruan, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hori baino lehen, hala ere, **AUKERAZKO BIRJARPEN ERREKURTSOA** jar dezakezu alkate-presidentearen aurrean, hilabeteko epearen barruan erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu horretan, ezin izango duzue errekurtsio kontentzioso-administratiborik jarri birjarpen errekurtsioa erabaki edo atzera bota arte.

Egoki iruditzen zaizuen beste edozein errekurtsio ere jar dezakezue.

Orio, 2021eko urriaren 22a

IDAZKARIA

Jon Carrera Jauregui